

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

##### Kultura

**Onesta Atiza komiki marrazkilarien elkarteak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, zeina 2020an egitekoak diren kultura-proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak diruz laguntzeko deialdiaren ebazpenaren kontrakoa baita**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 31n egindako ohiko bilkuran:

Gaia: onesta Atiza komiki marrazkilarien elkarteak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, zeina 2020an egitekoak diren kultura-proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak diruz laguntzeko deialdiaren ebazpenaren kontrakoa baita.

#### Aurrekariak

2020ko otsailaren 24an argitaratu ziren ALHAOn 10. ildoko dirulaguntzak —2020an egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta sendotutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak— emateko deialdiaren laburpena eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 7an egindako ohiko bilkuran onetsiak.

20 egun balioduneko epea zegoen eskabideak aurkezteko, eta 2020ko martxoaren 24an bukatzekoa zen. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak alarma-egoera deklaratu zuen, eta bertan behera geratu ziren, eta etenda, administrazio-epeak. Maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak bosgarren aldiz luzatu zuen alarma-egoera, 2020ko ekainaren 7ko 00:00ak arte, eta etendako administrazio-epeak ekainaren 1etik aurrera berrabiaraztea ezarri zuen. Beraz, epeak eten zirenean sei egun geratzen ziren epea amaitzeko, eta ekainaren 1ean berrabiatu zirenez, ekainaren 8an bukatu zen dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea. Epe berri hori udalaren webgunean argitaratu zen, eta interesa izan zezaketen erakundeei jakinarazi zitzaien.

2020ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkuran ebatzi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an gauzatzeko diren kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

Ebazpena 2020ko uztailaren 13ko ALHAOn argitaratuz jakinarazi zitzaien interesdunei.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez hau ebatzi zen:

Lehen a. Ez onartzea honako entitate hauek aurkeztutako eskabideak, biek 2020ko ekainaren 11n aurkeztu zituztelako, eta horrenbestez, epez kanpo:

- Ceiba kultur elkarte ekuatoginearra.
- Atiza komiki marrazkilarien elkartea.

2020ko uztailaren 23an, Atiza komiki marrazkilarien elkarteak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen ebazpen horren kontra, hau azalduz (laburbilduta):

“Atiza komiki marrazkilarien elkartearen eskabidea jaso izanaren agiria duen posta ziurtatuz bidali zen Vitoria-Gasteizko Udalera, 2020an gauzatzeko diren kultur proiektuei eta sendotutako

ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoan ezarritako epearen barruan, 2020ko ekainaren 8an bidali baitzen (ikus erantsitako egiaztagiriak).

Horregatik guztiagatik, ebazpenaren kontra errekurtsoa aurkeztuzat jotzea eskatzen du, eta horren deuseztasuna edo deuseztagarritasuna adierazteko.”

Aurkeztutako alegazioak ikusirik, Udalaren Erregistro Nagusiari kontsultatu zitzaion, eta hark eginbide bat eman zuen, zeinean hau jasotzen baita: “2020ko ekainaren 11ko dataz gutun urgente ziurtatu bat hartu zen Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistroan, zeinak Vitoria-Gasteizko Postetxeko 4. bulegoaren sarrera-zigilua baitzuen, 2020ko ekainaren 8ko dataz.

Erregistratzean, ordea, errore bat gertatu zen, eta Postetxean hartzeko data idatzi beharrean, udal bulegoetan hartzeko data idatzi zen, hau da, 2020ko ekainaren 11. Hori dela eta, jasota uzten dugu 2020448140 zenbakiko sarrera-erregistroaren data zuzena 2020ko ekainaren 8koa dela, dagozkion ondorioetarako.”

Uztailaren 23an, txosten juridikoa egin zen, eta hau adierazten da bertan:

Lehena: Berraztertze administrazio-errekurtsoa aukerakoa da errekurtso-egilearentzat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoaren ildotik. Administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

2020an egitekoak diren kultura-proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak diruz laguntzeko deialdia ebazteko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartu zuen erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu delarik, eta erabaki horrek amaiera ematen diolarik administrazio-bideari, organo horrek du eskumena errekurtsoa ebazteko. Hilabeteko epea du gehienez errekurtsoa ebatzi eta hori jakinarazteko. Hilabeteko epea zenbatzeari dago-kionez, errekurtsoa aurkezteko idazkia sartu den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen da.

Bigarrena: Atiza komiki marrazkilarien elkarteak errekurtsoa aurkezteko duen legitimotasunari dagokionez, hauek jotzen dira administrazio-prozeduran interesduntzat Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4.1 artikuluan:

a) Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular modura.

Horrenbestez, elkarte legitimatuta dago berraztertze errekurtsoa aurkezteko.

Hirugarrena: 39/2015 Legearen 112. artikulua hau dio: “Ebazpenen eta izapide-egintzen aurka, azken horiek gaiaren funtsa erabakitzen badute zuzenean edo zeharka, prozedurak jarraitu ezina eragiten badute, defentsa-gabezia edo eskubide eta interes legitimoen kalte erreparaezina sortzen badute, interesdunek aukera izango dute gora jotzeko errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko, oinarritzat harturik deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruz lege honen 47. eta 48. artikuluetan azaldutako arazoietakoren bat”

Atiza komiki marrazkilarien elkartearen errekurtsoaren oinarria da haren eskabidea ez dela onartu epez kanpo aurkezteagatik, baina 2020ko ekainaren 8an bidali zuela, jaso izanaren agiria duen posta ziurtatuz.

39/2015 Legearen 16. artikulua arautzen ditu erregistroak, eta 4.b) apartatuan ezartzen du interesdunek administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak postetxeetan aurkeztu ahalko dituztela, arauz ezartzen den moduan.

Errekurtsogileak egiaztatu du ekainaren 8an aurkeztu zuela eskabidea postetxean. Orobat, egiaztatuta geratu da Erregistroan errore bat gertatu zela, eskabidea postetxean hartu izanaren data erregistratu behar zelako, hau da, ekainaren 8a, deialdira aurkezteko epearen azken eguna.

Horregatik guztiagatik, txostengile honen iritziz, bidezko da Atiza komiki marrazkilarien elkar-teak aurkeztutako errekurtsio onestea, errore bat tarteko onartu gabe geratu baitzen hasierako eskabidea. Horrek lehia-konkurrentzia, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak urratu ditu eta, beraz, dirulaguntzak emateko ekintza ez da zuzenbidearekin bat etorri.

Kontuan izanik administrazio-prozedurak efikazia-printzipioa bete behar duela, organo eskudunaren ebazpen berean erabaki behar da errekurtsioaren ebazpena eta dirulaguntzak ematea, baldin eta Atiza elkarteak aurkeztutako proiektua balioetsi ondoren ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen badu.

Gainera, elkarteak aurkeztutako proiektua onartzeak ez dakar berekin aldaketarik dirulaguntzen gainerako onuradunei banatutako zenbatekoetan, deialdiaren uztailaren 3ko ebazpenean ez zelako agortu erabilgarri zegoen aurrekontu-kreditua.

Balioespen batzordeak proiektua balioetsi zuen, eta 2020ko uztailaren 23ko aktan proposatu zuen Atiza elkarteari 5.200,00 euroko dirulaguntza ematea "Crash comic 2020" proiekturako, 63 puntu lortu baititu.

Aurrekoa kontuan hartu da, eta 231203.3341.489.33 partidaren aurrekontu-zuzkidura egoki eta nahikorik badela, deialdiaren uztailaren 3ko ebazpenean ez zelako kreditua agortu.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza aintzat hartuta, eta eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2020ko otsailaren 24an emandako dekretua zein Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

1. Onestea Atiza komiki marrazkilarien elkarteak Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren aurrean (2020an egitekoak diren kultura-proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak diruz laguntzeko deialdia ebaztekoa) aurkeztutako berraztertze errekurtsioa.

2. 2020an egitekoak diren kultura-proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak diruz laguntzeko deialdia ebazteko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 3an hartutako erabakia aldatzea, 1. kontzeptuari dagozkion dirulaguntzen onuradunen artean Atiza komiki marrazkilarien elkar-tea sartzeko, eta 5.200,00 euroko dirulaguntza ematea "Crash comic 2020" proiekturako, 231203.3341.489.33 partidaren kontura.

3. Erabakiaren gainerakoa hasieran onetsi zen bezala geratuko da.

4. Interesdunari ebazpena jakinaraztea, eta ohartaraztea ezen, haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko duela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 31n

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendaria*  
**FRANCISCO JAVIER GALVE BORJA**